



Bilbo, 2010eko apirilak 28

## **Ingeles gazte bat Bilbora etorri zen...** **Kultua eta iraunkorra ez den hirigintza Barakaldon (Euskal Herria)**



Txaleta eraitsia 2005eko irudian (Koordenatuak: (+43° 17' 20.00", -2° 58' 50.11")) (43.288889, -2.980586)

Euskal Herriko industrializazioa, XIX. mendearen azken laurdenean gertatutakoa, neurri handi batean, Erresuma Batuekin izandako merkataritza-harremanen ondorioz sortu zen. Enpresa ingelesek, hala nola, Orconera Iron Ore, The Bilbao River and the Cantabrian Railway, Luchana Mining eta Dícido Iron Ore, kapital-kopuru handiak inbertitu zituzten Bizkaiko meatze-arroen meategietan. Enpresen bidez enpresaburuak sortu ziren, baita meatzaritzako eta siderurgiako teknikari adituak ere, horien artean, Joseph MacLennan, Sir Charles Palmer, Windsor Richards edo William Gill, eta horiekin batera teknologia: Hogdson, Stephenson, Bessemer, Cowper, Martin-Siemens edo, jadanik XX. mendean, Babcock & Wilcox.

Egia esan, merkataritza-harreman horiek oso probetxu handikoak izan ziren britaniarrentzat, baina eztaba daezina da, bestetik, Bizkaiko industria-burgesiako kide batzuk, hots, Ibarra sendia edo Sir Ramón de la Sota, negozio apartak eskuratu zituztela, eta hori guztia sustapen handia izan zen Euskal Herriko industrializazioari dagokionez.

Ingelesek batera futbola, Arts and Crafts eta garden-city iritsi ziren. Horietako lehenengoa Barakaldoko Lutxana auzoan eraiki zen, Orconera Iron Ore, XIX. mendearen azken urteetan, bederen, William Gill zuzendariaren ikuskaritzapean

(<http://www.icevirtuallibrary.com/docserver/fulltext/imotp.1901.18880.pdf> ). Hain zuzen ere, egoitza- eta fabrika-multzoa zen, eta horrez gain, parke zabal bat zegoen, erdian jauregia, tailerrak, bulegoak, zinema eta kirol-instalazioak kokatuta; hiri-eredu horren bidez industria-garapena eta bizi-baldintza egokiak bat egin nahi ziren, ingurumenaren ikuspuntua aintzat hartuta. Halaber, Orconerako auzoa hiri-kulturaren erreferente gisa eraikin nahi izan zen, bai eta Etxe Merkeen lehenengo aurrekari gisa ere, hogeitaz geroago eraiki direnak, Bizkaiko langileen konkista bikaina izanik, eta horrek Gerra Zibilaren aurretik Bizkaiko langileen etxebizitzaren ibilbide historikoan garrantzi handia izan du. Txalet horietan enpresa horretako enplegatu kalifikatuak bizi ziren, besteak beste, George Edward Wolf. (<http://www.mk-marketing.eu/e-Pamphlets/MK-LangMaster.pdf> )

Zoritxarrez, orain dela egun gutxi batzuk Barakaldoko udalak Orconerako antzinako kolonian geratzen den eraikin bakarra eraisteko baimena eman du, XIX. mendeko Euskal Herrian eraikitako “garden-city”ren lehenengo adibidea, orain dela hiru urte eraitsitako gainerako lau eraikinen ondorioz geratutako eraikin bakar hori artatzeko konpromisoa hartutako etxebizitza, hain zuzen. Eraipen horren bidez, Barakaldoko meatzaritzaren eta industriaren nahiz ingeles kalifikatuen oroimen historikoaren zati handia galduko da. Udalerriak, gaur egun ekonomia globalizatuan sartu eta lehian aritu nahi duenak, XXI. mendean ezin izan du hirigintza iraunkorra planteatu, ezta iazko mendean gertatutako industrializazioaren sustapenari eta hirigintzaren modernitateari lotzea ahalbidetutako nortasun-ezaugarriak babestu eta artatzeko hirigintza iraunkorra planteatzea ere.

Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak, azken zortzi urteetan politikariei Euskal Herriko industrializazio-prozesuan ingelesek izandako esku-hartzearen legatu garrantzitsua gordetzeko garrantziaren berri emateko ahaleginak egin dituenak, atsekabe handia erakutsi du horren suntsipenaren inguruan.



Emakumea atzo Orconera Iron Ore enpresaren bost txaletetatik azkena eraitsi ostean geratutako hondakinei begira.  
:: PEDRO URRESTI El Correo 2010/04/17

